


**Azaroak 12 eta 19**
**17:00 - 20:00**
**Gazte Gela. Ikus-entzunezkoen gela**
Maestro Zubeldia kalea z. g. 48920 Portugalete

**Dinamizatzailea**
**Ricardo Fernández Quintana**
Aditua da Bizkaiko, Latinoamerikako eta Afrikako proiektuen identifikazioan, formulazioan, jarraipenean, justifikazioan eta ebaluazioan. Hogeita bost urteko esperientzia eta lana du gizarte-erakundeetan eta garapenerako lankidetzan, hainbat arlotan esku-hartze ugari eginda, eta kultura-egokitasunaren, giza eskubideen, generoaren eta ingurumenaren ikuspegiak txertatuta. Esperientziaduna da administrazio publikoan Garapen

Lankidetzarako Zuzendaritzan, Eusko Jaurlaritzaren deialdietan euskal GGKEek aurkeztutako proiektuen jarraipena egiten.

**Deskribapena**

Gizarte-erakundeek esku hartzen duten errealitatearen ezagutza zabala dute, eta oso argi dituzte beren helburu estrategikoak. Hala ere, esku hartzeko proposamenak helarazterakoan, beti ez da erraza izaten erakundeen informazio eta ezagutza hori guztia laburbiltzea eta antolatzea eta dokumentu batean jasotzea. Horretarako, funtsezkoa da helburuak eta xedeak sistematikoki helarazten ikastea, beren proiektuak eskuragarriagoak izan daitezen hobeto ezagutzeko interesa izan dezaketen lagun

edo
erakundeentzat.

**Helburuak**
Tailer praktiko
honen bidez,
ikasleek
proiektuen
diseinuari eta
formulazioari
aurre egiteko
esparru logikoaren
metodologia
ezagutuko dute.
Ikasleek
proiektuak
sistematikoki
identifikatzeko
eta formulatzeko
oinarrizko eta
beharrezko tresnak
eskuratuko
dituzte.

**Edukiak**
Proiektuak
identifikatzea.
Arazoen zuhaitza
eta konponbideen
zuhaitza.
Formulazioa.
Testuingurua,
aurrekariak eta
justifikazioa.
Esparru logikoa
(proiektu baten
plangintza-matrize
a). Helburuak,
emaitzak,
jarduerak,
adierazleak,
egiaztapen-iturria
k, hipotesiak).
Zeharkako
ikuspegiak
(generoa,
ingurumena, etab.)
Jarraipena


Phoca PDF

Justifikazioa
Ebaluazioa

**Metodologia**

Metodologiak aurkezpen bat izango du, tailer osoan zehar gida izango dena, eta proiektuen diseinuan ohikoenak diren adibide eta kasuistikak agertuko ditu. Ariketak eta kasu praktikoen azterketak egingo dira.

**Parte hartzeko baldintzak**

Portugaleteko gizarte-erakundeetako kideek izango dute lehentasuna. Tailerra doakoa da ikasleentzat eta gastua Portugaleteko Udalak hartzen du bere gain.

**INSKRIPZIOA**